

Hazi

Euskara

Getarian

Getarian euskaraz hazi gara.
Hazi dezagun euskara.



2023ko udaberria (ia)

Getariarrei,

Getaria nauzue.
Zuen etxea.
Zuen herria.

Zuekin batera esnatzen naiz egunero. Egunsentian hasi eta iluntzeraino, bizitzaz betetzen dituzue nire kaleak eta txokoak. Eta egunabarretik ilunabarreraino, gustuz entzuten ditut zuen ilusioak eta ametsak.

Aspalditik ezagutzen dugu elkar. Itsasaldi ugari partekatu ditugu. Ur gazi-gozoetan, hazten joan gara. Belaunaldiz belaunaldi, aurrera egin dugu. Guraso eta arbasoengandik jasotakoa zainduz. Lekukoa, datozenekin eskualdatuz.

Betidanik izan gara herri euskalduna. Bai jatorriz, bai hautuz. Azken urteetan, euskararen arnagune ere bihurtu gara. Bizitzeko, geuk bezainbeste behar baitu hizkuntzak arnasa. Arnasgoren eta arnasbeheren baitan sortzen dugun ahotsa. Gu guztion ahotsa. Euskaldunon ahotsa.

Gaur egun ordea, geurean, beheranzko joera ageri du euskararen erabilerak. Oraingoan, gu behar gaitu euskarak. Etxean, eskolan, moilan, plazan, Pistonan, Katraponan, Artzapen, Gaztetapen, Askizun... Getaria guztian. Eman diezaigoun euskarari euskarak eman diguna.

Getarian euskaraz hazi gara.
Hazi dezagun euskara.

LEHEN URRATSA



MARTXOAK 24
OSTIRALA.



GUDARIEN ENPARANTZA,
18:00.

Elkarrekin, elkarrentzat.

Eta euskara ekarriko dugu lehen lerrora, guztiok batzen gaituen zehar-lerroa. Euskarak hazten jarrai dezan. Euskara hazten jarrai dezagun.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan,

Getaria



ESPAÑOL



FRANÇAIS



ENGLISH



عربي



ROMÂNĂ